

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroari eskainiko zaionaren definizioa, hots, zein arazo konpondu ala beharrian aseko diogun.

---

Beti-Xiku ekimenaren eskaintza, aterki-ontzi batean datza, Xiku-Xiku izenekoa. Baina Xiku-xikua, ez da beste edozein aterki-ontziren modua, izan ere, oinarritzko bereizgarri bat du, aterkia bera ontzian gordetzeaz gain, berau lehortu eta beraz hezetasuna ekiditea ahalbidetzen du.

Gure inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki baina baita Espainia mailan ere, orokorrean klima hezea dugu, ia hilabetero egun edota aste euritsuak izanik. Alegia, gure klimaren ondorioz aterkia oinarritzko tresna bat da, etxe gehienetan aurkituko duguna, eta harekin batera hauek gordetzen dituen aterki-ontzi bat. Beraz, azalekoa da aterki-ontzi bat etxe guztietan izateaz gain, beronek, kalitatezkoa izan behar duela, klimak eta prezipitazio mailak beronen beharra ezinbesteko egiten baitu.

Honi jarraiki, gure eskaintza ez da aterkiak gordetzeko tresna batera laburtzen; aitzitik, behin beharra nabaria izanik, produktua birmoldatu eta lehen aldiz, ontziari plus bat gehituko dion funtzio berezi bat eskaintzen dugu. Aterki bat ezeroso edo beste modu batean esanda aterki bat izateak suposatzen dituen bi arazo ostentzen ditu. Alde batetik aurretik aipatu eta oinarritzkoa dena, euritakoa bera gordetzeko funtzioa, eta bestetik, eta gure eskaintza beste edozein aterki-ontzitik bereizten duena: aterkia bera lehortzearena.

Gure proposamenak balio kualitatibo zein kuantitatiboa du. Alde batetik kalitate aldetik diseinu eta tresna proposamen berritzailea du, eroso zein estetikoki aproposa dena. Bestalde, balio kuantitatiboari dagokionez, prezio irisgarria eta eskaintzarako egokia du, diru-sarreraren atazan zehaztuko da.

